

- BOSeK Facebook-en daukan orrialdean
- BOSeK Youtube-n daukan orrialdean, zuzendariak egitaraua azaltzen du

BOSEN DENBORALDIKO LAUGARREN KONTZERTUA

Manuel Hernández Silva zuzendari gonbidatuaren zuzendaritzapean eta Martina Filjak piano-jotzaile bakarlariarekin. Martina Filjak María Canals Nazioarteko Musika Jaialdiaren 2008ko edizioaren irabazlea izan zen, eta Bilbon hasiko du bere kontzertu bira, Jesús Serra Fundazioaren babesarekin

Bilbon, 2009ko azaroaren 25ean

Egunak: azaroaren 26a eta 27a

Ordua: 20:00etan

Lekua: Euskalduna Jauregia

Hilaren 26an eta 27an, BOSen Denboraldiko laugarren kontzertua izango da Euskalduna Jauregian. Egitarau honetan, Kordobako Orkestrako zuzendari artistiko eta titularra den Manuel Hernández Silva zuzendari venezuelarra eta María Canals Nazioarteko Musika Jaialdiaren 2008ko edizioaren irabazlea den Martina Filjak bakarlari kroaziar gaztea izango dira.

Bi kontzertu hauen egitaraua honakoa da:

F.J. Haydn: 59. sinfonia La maiorrean "Sua"

R. Schumann: Kontzertua piano eta orkestrarako la minorrean, op. 54

A. Dvorák: 8. sinfonia Sol maiorrean

Martina Filjak, pianoa

Manuel Hernández Silva, zuzendaria

Egitarau honetan, bi gonbidatuek bidaia zirrargarria eskainiko digute Erromantizismoan barna. Etenik gabeko bidaia; XVIII. mendeko Austrian hasiko da J. Haydnekin (1732-1809), XIX. mendearen lehenengo erdialdeko Alemanian jarraituko du R. Schumannekin (1810-1856), eta XX. mendearen atariko Txekian amaituko da A. Dvorákekin (1841-1904).

Bidaia ederra, ahalsua, indar eta energiaz betea, mendebaldeko munduaren ordenaren hastapenetan hasten dena (XX. mendea nahiko aurreratuta egon arte iraun zuen Europa eratzear zegoenean) eta New Yorkera joan eta "Mundu Berriaren sinfonia" idatzi baino lehen Dvorákek egindako azken sinfoniarekin amaitzen dena; izan ere, nolabait, sinfonia hark XX. mendean munduak jasango zituen aldaketa sakonak iragartzen zituen.

NOTAS AL PROGRAMA

PROGRAMA 4. EGITARAUA

Kontzertuaren babeslea / Concierto patrocinado por
Seguros Bilbao - Fundación Jesús Serra – Grupo Catalana Occidente

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Manuel Hernández Silva, zuzendaria / director

I

Franz Joseph Haydn
(1732-1809)

59. sinfonia La maiorrean “Sua”
Sinfonía nº 59 en La mayor “Fuego”

I. Presto
II. Andante o piu tosto Allegretto
III. Menuetto - Trio
IV. Allegro assai

Robert Schumann
(1810-1856)

Kontzertua piano eta orkestrarako la minorrean, op. 54
Concierto para piano y orquesta en La menor, op. 54

I. Allegro affectuosso
II. Intermezzo - Andantino grazioso
III. Finale: Allegro vivace

Martina Filjak, pianoa / piano

II

Antonín Dvořák
(1841-1904)

8. sinfonia Sol maiorrean, op. 88
Sinfonía nº 8 en Sol mayor, op. 88

I. Allegro con brio
II. Adagio
III. Allegretto grazioso
IV. Allegro ma non troppo

2009ko azaroaren 26an, osteguna, eta 27an, ostirala. 20:00etan
Jueves 26 y viernes 27 de noviembre de 2009
Euskalduna Jauregia (Bilbao) Auditoriuma

EGITARAUARI BURUZKO OHARRAK

Mende eta erdi ez da ezer

Gaur gauean entzungo ditugun hiru konpositoreen artean, 150 urte baino gehiagoko bizitza profesionalaren berri emango da. Gogora ditzagun, bada, datak: Joseph Haydn Rohraun jaio zen, Vienako herri txiki batean, 1732. urtean, eta hiri horretan zendu zen 1809an. Hamabi hilabete eta zenbait egun geroago, 1810eko ekainaren 8an, Robert Schumannek argia ikusi zuen Zwickaun -Austriako hiriburutik 500 kilometrora- eta 46 urte zituela hil zen Endenichen, Bonnen kanpoaldean. 1856. urtea genuen. Ordurako jaioa zegoen Antonin Dvorák (1841eko irailaren 8an) Nelahozevesen –Schumann jaio zen herritik baino 200 km gutxiagora-. Dvorák 1904an hil zen Pragan, oso hurbil zegoen musikaren beste muino batean.

Inori ez dio ihes egiten garai hark gertakari ugari izan zituela. Zenbait iraultza –1905eko Errusiako iraultza gutxigatik ez da sartzen epe horren barruan-, eta beste zenbait berrezarpen. Are iraultza gehiago, baina, kasu honetan, industrialak; planeta osoko agendak markatu zituzten Inperioak sortu ziren: Napoleonena, Astro-hungariarra, Britainiarra... Bien bitartean, Estatu Batuak Mendebaldeko Australia izatetik galaxiaren erdigune izatera pasa ziren.

Arteen munduak antzeko astinduak bizi izan zituen. Canalettotik Picassora arte, Goya, Gauguin edo Schiele tartean zeudela. Literaturak, arkitekturak, zientziak... Belaunaldi bakoitzak trogloditak bailiran begiratzen zien bere aitona-amonei.

Musikari dagokionez, Europa erdialdeko gune honek -non jaioberri guztiak konpositoreak izango zirela ematen zuen- denetarik ikusi zuen. Haydn jaiotzen zegoela, Johann Sebastian Bachek artean ez zuen Gabonetako Oratorioa konposatu, eta Dvorák hil zeneko urtean, Schoenbergekek harmoniako eskolak ematen zizkien Anton Weberni eta Alban Bergi.

Eta, halarik ere, gaur programatutako hiru piezak, denboran banaturik badaude ere, badirudi zerbait dutela amankomunean. Dela lanen kanpoko ezaugarrietan (orkestrazio klasikoa, soinuaren eztrandak melodia txeratsuekin batera, mozorrotutako dantzak), dela barneko egituran eta, hori guztiori, gai bat garatuz, mende horietan ohi bihurtu zena.

Nahiko bitxia da ikustea, halaber, hiru konpositore horiek nahiko estimatuak zirela lan horiek idatzi zituzten garaian. Alabaina, ez ziren, ezta gutxiago ere, zenbait urte geroago izango ziren bezain ospetsuak. Hirurak izan ziren ibilbide luzeko artistak, inspirazio faltari edo modaz kanpo geratzeko arriskuari kontra eginez. Artean, hirurek zituzten gordeta euren konposiziorik onenak, hain zuzen ere, ezagun egin zituztenak eta egun ezagutzen ditugunak.

1766an, Joseph Haydn, Nicolaus printzearekin eta gainerako gortearrekin batera, Esterhazako egoitza berrira joan ziren, Vienatik 90 kilometrora. Etxebizitzaz aldatze hori Haydnen nagusiaren (Gregor Werner) heriotzarekin batera izan zen, kapera titularreko maisuarekin. Haydnek, bat-batean, bere kargu berriaren erantzukizun guztiei aurre egin behar zien (nahiz eta Werner edadetuak, askotan, “abestien konpositore” eta “fashion victim” bezalako isekak bot). Horien artean, besteak beste, zenbait erlijio errepertorio konposatzea zegoen, ordura arte bere betebeharren artean egon ez zena. Gisa horretan, 1766-1770 epeari dagokion dozena bat sinfonia bakarrik daukagu. Horien artean, *'Feuer'* dago, baina ez dakigu noizkoa den data zehatza. Halere, konpositorearen katalogoak berak 1768. urte inguruan kokatzen du.

Ezizena, musikaren historian sarri askotan gertatu izan den bezala, ondoren jarri zuen eta jatorri ezegaguna dauka. Askok obraren une kementsuekin erlazonaturik dagoela uste dute, esaterako,

hasiera zalapartatsurekin, *Sturm und Drang* tradizio solidoenean. Baina sinesgarriagoa da pentsatzea bere ezizena *Die Feuerbrunst* antzerki lanaren atsedendian lan egitetik jasotzea, 1774. urteko emankizunean, hain justu. Nola edo hala, Haydn asko dibertitu zen hau konposatzean. Lanak agertzen duen energia loturik dago gehiegi apaindu gabeko orkestra baten argilunetara; izan ere, ez du zortzi tronpetaren beharrik ezta bere herenilobak diren Mahlerren eta Brucknerren gainerako taldearena ere. Haydnentzat oboe eta tronpa pare bat nahikoa zen su on bat pizteko.

Haydnek sinfoniak idazteko erakusten zuen erraztasuna Robert Schumannen eta bere pianorako kontzertuetarako egiten zituen ahaleginen guttiz bestelakoa da. Umetik zebilen horren atzetik, eta etorkizunean bere emaztea izango zen Clara Wieckek, 17 urte besterik ez zituela, horietako bat konposatua zuen la minorrean. Robertek, berriz, nahiago izan zuen bere lehenengo hiru saiakerak bertan behera uztea: 16 urterekin, *mi* minorrean egiten saiatu zena; 18 urterekin, *Mi bemol* maiorrean egiten saiatu zena, eta, azkenik, 21 urterekin, *Fa* maiorrean egiten saiatu zena. Eta, ozta-ozta daukagu gaur egun bere *la* minorreko kontzertu ezaguna.

Lan global eta bateratu batek jatorrizko diseinuan izan ditzakeen ikuspegi erromantikoetatik aldenduz, pianorako eta orkestrarako kontzertua op. 54, jatorrian, 1841. urtean konposatutako pianorako eta orkestrarako Fantasiako lan zoragarri bat besterik ez zen nahi izan, eta Schumannek ez zuen editorerik aurkitzen. Formatu txiki horiek oso txarto saltzen ziren. Schumannek uste zuen beste bi denbora gehituz gero, lantxo bitxia geratuko zitzaiola, eta bete-betean asmatu zuen. Esan eta egin, arrakasta itzela eta etenik gabekoa izan zen 1846. urteko urtarrilaren lehen estreinatu ondoren. Eta hamalau urte geroago, arrakasta bera lortu zuen bere hurrengo kontzertuak, hots, biolontxelorako 129. op kontzertuak. Deigarria da, era berean, Schumannen orkestraren arrakasta bere bi kontzertuetan etzatea, bere sinfonia propioetan baino. (Badago biolinerako hirugarren kontzertu bat hortik, baina Joachim historiaren idazmahaiaren tiradera batean zokoratzen presatu zen, baina, hori, Kiplingek esango lukeen bezala, beste kontu bat da...).

Dvorák bere ospea *cellorako* beste kontzertu izugarri bati zor dion konpositorea da. Ospe hori gehien programatu zaion beste lan batekin partekatzen du, alegia, Mundu Berriaren Sinfonia. Bi lanak heldutasun handikoak dira.

Schumannek pianorako egindako bere lehen kontzertuekin izandako dudak eta zailtasunak Dvorák bere hasierako sinfoniekin izandakoen berberak dira. Izan ere, haren ustez, ez ziren aipatzeko moduko lanak. Bosgarren saiakeraz geroztik bakarrik hasi zen zenbaketa, eta, ondorioz, anabasa ikaragarria daukagu katalogoarekin. Bederatzigarrena, berez, Bosgarrena gisa argitaratu zen, eta Zortzigarrena (gaur entzungo duguna), berriz, hainbat hamarkadatan Laugarrena bezala ezagutu zen, Dvorákek -zenbait sasiko aintzatetsi ondoren, baina ez guztiak-Zazpigarrena deitzen zion.

Zortzigarren sinfonia op. 88 hau Dvoráken ohiko erabakitasunarekin egin zen 1889ko aste gutxi batzuetan, eta hurrengo urtean estreinatu zen Pragan. Ordurako, publikoak konpositorea ezagutzen zuen, baina sinfonia labur honi esker (berrogei minutu baino gutxiagokoa) etorkizunean izango zen mitoa sendotzen hasi zen. Horren harira, zale batzuek -ez dakigu benetan hori sinisten dutelako edo esnobismo hutsagatik ote den- Mundu Berriari buruzko beste lana nahiago dute. Baina, egia esan, ez zaie arrazoirik falta...

Dvorák, jakitun izan gabe, Europako sinfoniaren amaieraren hasiera idazten ari zen. Hain zuzen ere, gure arbasoei mende eta erdiz lagundutako musika formarena, baina, zorionez, oraindik eman diezaiokegu begiratu bat gure XXI. mendean.

Martina Filjak, pianoa

Martina Filjak Zagreben jaio zen eta piano-jotzaile familia batean hazi zen. Prestakuntza musikala Zagrebeko Musika Akademian jaso zuen, bai eta Vienako Kontserbatorioan ere. Halaber, Rotterdamen (Holanda) eta Karlsruhe ikasi zuen (Alemania).

Bere ikasketa artistikoak garatzeko helburuarekin, maisu-eskoletan parte hartu zuen (Moskun, Salzburgon eta New Yorken), bai eta Hannoverko Hochschule für Musik und Theaterreko bakarlarientzako ikastaroan ere, Mi Kyung Kim maisu zuela.

Bere haurtzaroan nazioarteko hainbat sari jaso zituen, besteak beste: Vienako Boesendorfer saria, Japoniako Okiden Txapelketaren sari berezia, Austriako Johannes Brahms Nazioarteko Txapelketako lehen saria, Italiako M. Masin saria, New Yorkeko (AEB) International Keyboard Institute Competition saria eta Italiako Vincenzo Bellini Txapelketakoa eta Bartzelonako Maria Canals Pianorako Nazioarteko 54. Txapelketako lehen saria eta urrezko domina.

Bakarleri gisa, hainbat lekutan aritu izan da: Amsterdameko *Concertgebouwen*, Bruselako *Hotel de Villen*, Ljubljnanako *Philharmonic Hallen*, Parisko *Salle Cortoten*, Estrasburgoko *Palais des Congresen*, Sofiako *National Palace of Culture*n, Vienako *Boesendorfer Saalen*, eta New Yorkeko *Steinway Hallen*.

2009 eta 2010. urteetarako aurreikusitako proiektuen artean, besteak beste, ondokoak daude: birak Espainia, Argentina eta Txinatik, Pariseko Salle Cortoten, New Yorkeko Carnegie Hallen eta Berlineko Konzerthausen errezitaldiak, bai eta Naxos disko-etxearekin bere lehen grabazioa ere.

Manuel Hernández Silva, zuzendaria

Reinhard Schwarz eta Georg Markekin batera ikasi zuen zuzendaritza Vienako Goi Mailako Kontserbatorioan, eta Ohorezko Matrikula atera zuen. Urte horretan bertan Vienako Ganbera Orkestrarako Forum Jünger Künstlern Txapelketako lehen saria irabazi zuen, Vienako Konzerthausen eta Linzeko Brucknerhaus orkestra hori zuzenduz. Hainbat orkestrsk gonbidatu izan dute, besteak beste: Vienako Orkestra Sinfonikoa, Pragako Irratiarena, Israelgo Sinfonikoa, Koloniako Irrati Orkestra, Nord-Tchekische Filarmonie, Txekiako Ganbera Orkestra Filarmonikoa, Karlsbadeko Sinfonikoa, Seuleko (Korea) KBS Orkestra, Calgaryko Filarmonikoa, Montreal, Toronto, Ottawa, Hartford, San Diego, Portland eta West Palm Beacheko Operako Orkestrak. Irakasle moduan izandako ibilbideari dagokionez, Vienako Goi Mailako Kontserbatorioan nazioarteko ikastaroak, konferentziak eta orkestra zuzendaritzako maisu-eskolak eman ditu. Berriki, Vienako Sinfonikoa zuzendu du hiri horretako Musikvereinen, eta disko bat grabatu du berarekin. Bere hurrengo konpromisoen artean daude, besteak beste: Espainiako hainbat orkestra (Bilboko Sinfonikoa, Galiziako Real Filharmonía, Gaztela eta Leongo Sinfonia, Valléseko Orkestra...), Pragako Irratiaren Orkestra Sinfonikoa, Westdeutsche Rundfunk, edo Bremeneko Filarmonikoa, bai eta Txirula Magikoa ere, Murtziako opera denboraldian.